

# HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

|                 | PROBEN<br>EZAUGARRIAK  | AURREIKUSITAKO<br>DENBORA | PUNTUAZIOA<br>(GEHIENEZ) | PUNTUAZIOA<br>(GUTXIENEZ) |
|-----------------|--|---------------------------|--------------------------|---------------------------|
| IRAKURMEN PROBA | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lau ariketa dauzka. Laurak egin behar dira.</li> <li>• lau irakurgai dira eta guztira 34 item.</li> <li>• Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du; bigarren, hirugarren eta laugarren ariketetan 0,8 puntu.</li> <li>• Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez.</li> </ul> | 50-60 min                 | 20                       | 10                        |
| IDAZMEN PROBA   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>  | 90 min                    | 30                       | 15                        |

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

### 1. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

#### ‘Testamentu egiten duen batek bere herederoei bezala...’

Antzinako gizarteetan ondasunak norberarenak ziren, ezin ziren **1**. Pertsonak hiltzean, ondasunak berekin batera lurperatzen ziren. Beraz, familiakoek ezin zuten hildakoaren ondasunik erabili. Gizartea **2** batera agertu da, poliki-poliki, oinordetzaren figura juridikoa; eta, ondorioz, gaur egun, hildakoaren sendiak haren ondasunen jabetza lortzeko aukera du.

Oinordetzaren figura tipifikatua dago Espainiako Konstituzioan, honela baitio hitzez hitz: «Jabetza pribaturako eta jarauntsirako eskubideak **3** dira». XIX. mendean idatzitako Espainiako Kode Zibilean irakurgai dago testamentu hitzaren definizio zehatza: «Testamentu deritzo norbaitek hil ondoren bere ondasun guztiak edo batzuk **4** egiten duen egintzari». Hau da, testamentuaren helburua da herentzia edo jarauntsia transmititzea. Oinordetzaren bidez, hildakoaren jabetzak **5** lortzen da. Eta, hain zuzen, oinordetza hori **6** modurik ohikoena *mortis causa* (hil ondorengo) testamentua dugu, nahiz eta *inter vivos* (bizian) ere egin daitekeen.

Andres Urrutia notario eta euskaltzainburuak esan digunez, uste baino askoz testamentu modu gehiago dago. Espainiako Kode Zibilak hainbat testamentu **7** ditu; alde batetik, testamentu arrunt edo ohikoak; bestetik, aldiz, bereziak.

Testamentu arruntak:

- Olografoa: testamentugileak berak idatzitako testamentua da, eta halako forma eta **8** jakin batzuk ditu.
- Testamentu irekia: notario aurrean egiten dena, eta ohikoena.
- Testamentu itxia: testamentugileak gutun-azal itxian bere azken nahia adierazten du, eta notarioari gutun-azal hori erakusten dio testamentuaren edukia bera jakinarazi gabe.

Testamentu bereziak:

- Testamentu militarra: gerra-aldian, kanpainan, pertsonak testamentua egin dezakete, gutxienez, kapitain-graduak ofizialaren aurrean.
- Itsasoko testamentua: itsas bidaietan zehar doazenen testamentu ireki nahiz itxiak egin ditzakete.
- Atzerrian egindakoa: norberaren nazio-lurraldetik kanpo egin daiteke testamentua, zauden herri horretako legeek **9** formen menpe.
- Hilzorian edota izurrite-aldian egindakoak: testamentua, hurrenez hurren, bost eta hiru **10** egokiren aurrean egin daiteke notarioaren esku-hartzerik gabe.

Bestalde, «gaur egun, bada bizi-testamentua ere, ondarearekin **11** ez duena», Urrutiak dioskunez. Azken orduan jaso nahi diren edo nahi ez diren osasun-tratamenduei eta zaintzari buruzko argibideak ematen dira bizi-testamentuan. Etorkizunera begira egiten da, gaixotasun edo lesioen ondorioz jaso litezkeen tratamenduen gainean erabakitzeke, edo erabakitzeke **12** galtzen bada aplikatzeko. Bizitza modu artifizialean ez luzatzeko eskatu ohi da, nahiz eta beste hainbat jarraibide ere eman daitezkeen: zaintzak non jaso nahi diren, organoak eman nahi diren, eta abar. Lehenengo, Nafarroak ekin zion bizi-testamentua egiteko bideari, 2003an. Urte berean **13** zuten bide hori Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak. Eta 2004tik egin daiteke Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Andres Urrutiak argi eta garbi dio nahaste-borraste handia dugula Euskal Herrian testamentuari dagokionez: «Sistema desberdinak ditugu bateko eta besteko euskal herrietan. Oraintxe, EAEn saiatzen ari gara Eusko Legebiltzarrak lege bat egin dezan, bakarra, Azpeitian zein Somorrostron zein Arabako Oionen berdin aplikatuko dena; hau da, legearen aurrean EAEn forudunak eta ez-forudunak **14**. Orain arte ez dugu horrelakorik izan! Esaterako, gaur egun, bilbotarrak ez du Aretan bizi den batek duen askatasuna

seme-alaben artean aukeratzeko. Izan ere, Espainiako Kode Zibila ez zait aplikagarri Areetan, Bilbon ez daukat askatasunik, eta **15** gorde behar dut senipartea seme-alaba guztientzat. Lege berria egin eta aplikatzen denean Areetako kausatzaile horrek duen askatasuna izango du bilbotarrak ere. Besterik da askatasun hori **16** », Urrutiak esan digunez. Forudunak eta ez-forudunak parekatuak, askatasun bera izango dute gipuzkoarrek eta arabarrek.

Nafarroako egoera dela eta, testamentua **17** egiteko erabateko askatasuna du bertan kausatzaileak.

Ipar Euskal Herrian, Napoleonen garaiko Kode Zibila da indarrean. « **18** », kontuan hartu behar da Ipar Euskal Herrian ondarea bizi artean transmititzen dela. Testamentua gutxiago erabiltzen dute», esan digu Urrutiak.

Administrazioa euskaraz, 2014ko urria. Egokitua.

### 1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- |   |  |  |
|---|--|--|
| 1. a) mamiu<br>b) besterendu<br>c) gailendu<br>d) aintzakotzat hartu    | 2. a) uztartzearekin<br>b) murgiltzearekin<br>c) garatzearekin<br>d) hedatzearekin | 3. a) oldartzen<br>b) aldarrikatzen<br>c) adierazten<br>d) aitortzen       |
| 4. a) xedatzeko<br>b) barneratzeko<br>c) azpimarratzeko<br>d) agortzeko | 5. a) gaurkotzea<br>b) ezabatzea<br>c) eskualdatzea<br>d) ebastea                  | 6. a) hausnartzeko<br>b) gauzatzeko<br>c) bereganatzeko<br>d) eguneratzeko |
| 7. a) banatzen<br>b) lausotzen<br>c) argitaratzen<br>d) bereizten       | 8. a) betekizun<br>b) asmakizun<br>c) islapen<br>d) bihurtzea                      | 9. a) ezarritako<br>b) egikaritutako<br>c) bateratutako<br>d) erraztutako  |
| 10. a) bitartekari<br>b) esatari<br>c) eratzaile<br>d) lekuko           | 11. a) zirrikiturik<br>b) kalapitarik<br>c) zerikusirik<br>d) oihartzunik          | 12. a) estaldura<br>b) ekoizpena<br>c) ahalmena<br>d) oroimena             |
| 13. a) isolatu<br>b) kausatu<br>c) areagotu<br>d) urratu                | 14. a) berdintzeko<br>b) ustiatzeko<br>c) nozitzeko<br>d) osatzeko                 | 15. a) harriduraz<br>b) nahitaez<br>c) zinez<br>d) menturaz                |
| 16. a) baliatzea<br>b) ihardestea<br>c) sumintzea<br>d) deuseztatzea    | 17. a) halabeharrez<br>b) nahieran<br>c) ahuspez<br>d) berariaz                    | 18. a) Hala nola<br>b) Artean<br>c) Dena den<br>d) Azkenik                 |

## 2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

### TELEBISTA ASKATU

Hegoaldeko lagunok, sintonizatu al dituzue telebistak? Analogikotik digitalera salto egin genuenetik, profesionalak gara botoiari eman eta kate-topaketan. Atzean geratu dira kontu horiek egiteko telebistara gerturatu behar genueneko urteak. Kate bakoitzaren botoiak gordetzen zituen estalkia altxatu eta teklaren alboko zirrikituan kabila sartu behar genuen. Buelbaka eta bueltaka hasten ginen orduan, ikusi nahi genuenaren irudi garden-argia lortu arte. Behin katea topatuta, lana amaituta zegoen zenbaitentzat. Beste batzuk, ordea, bide-erdian baino ez ziren; antenaren jolas-dantza hasi behar baitzuten orduan. *Poltergeist* (gertakari paranormal) kasu bat ematen zuen, «antena ukitzen duzunean soilik ikusten da, ez ezazu aparatua eskuetatik askatu!» zioena. Normalean, manipulazioan zebilen pertsona sakrifikatuta amaitu ohi zen prozesua.

Orain, askatu behar dena 800MHz frekuentzia da. Europar Batasunak horrela ezarri du, sakelako telefonoaren 4G teknologiarik tokia egiteko. Mekanismoari dibidendu digitalaren askapen-prozesua esan diote. Alegia, eremuan tokia egin behar dela seinale denak kabitzeko. Haiek erabaki eta geuk ordainduko dugu, zer ondo! 350-400 euro bitartean aterako zaigu kontua. Baina, e! Espainiako Gobernuak dirulaguntzak eskainiko ditu. Hortaz, argi dago telebista zein arma garrantzitsua den.

Internetek aurreneko xakea egin dio telebistari. Horrek ez du esan nahi orain arte zartakoak oparitu ez dizkionik. Horien artean handienak izan dira telebista-kateetako nahiera-atalak, eta, bestalde, Interneterako propio ekoiztako ikus-entzunezko produktuak. Agidanez, partida interesante dago; telebistak, aurrerantzean bizirik iraun nahi badu, laster fitxa mugitu beharko duelakoan nago. Kontuak Ray Bradbury-ren *Skeleton* liburua ekarri dit gogora. Liburuan, bere gorputza eskeleto batek ardazten duela jabetzen da Harris jauna; eta, orduan, eusten eta mugatzen duten hezurren kontrako gerra hasten da. Bada, iruditzen zait telebistari antzekoa gertatzen ari zaiola; telebista-tresnak dira telebista-formula mugatzen dutenak. Ikus-entzunezkoek aurrera segitzen dute erritmoa jarrai ezin diezaieketen tresnen menpe. Noizbait telebista askatu beharko dugu.

PALACIOS, Leire. <berria.eus>, 2014ko urria. Egokitua.9

## 2. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 19. Zer dio Leire Palaciosek kate-topaketaz?

- a) Aro analogikoan gaudenetik, prozesuak profesionalizatzerara jo duela.
- b) Ondo ikasiak garela, azkenaldian telebista sintonizatu dugun maiztasunagatik.
- c) Prozesua egoki egiteko, profesionalak behar dugula izan.

### 20. Zer azaltzen du lehengo sintonizatzeko eraz?

- a) Hainbat pauso zituela prozesuak, eta, batzuetan, azkenekoarekin trabatzen zirela.
- b) Esku-lana zela, eta dantza ondo egitea bezain kontu konplexua zela.
- c) Katearen irudi argia aurkitzea *poltergeista* gertatzea bezain zaila zela.

### 21. Zeri esaten diote dibidendu digitalaren askapen-prozesua?

- a) Espainiako Gobernuak 800MHz frekuentzia askatzeko abiatutako prozesuari.
- b) Sakelakoek eta telebistek lehiatzeari uzteko sortutako mekanismo berriari.
- c) Sakelakoaren eta telebistaren seinaleak birkokatuko dituen liberalizazio-prozesuari.

### 22. Telebistari lotutako zer aurreikuspen egiten du Palaciosek?

- a) Irtenbideren bat asmatu beharko duela, Internetek lekua ken ez diezaion.
- b) Interneterako propio ekoiztutako ikus-entzunezkoak ere ikusgai jarri beharko dituela.
- c) Telebista-kate guztiek bat egin beharko dutela Interneteko ikus-entzunezkoekin lehiatzeko.

### 23. Zer ondorio ateratzen du *Skeleton*-eko kasuaren adibidearekin?

- a) Harris eskeletoaren kontra borrokatzen den bezala, telebistak Interneten kontra egin behar duela.
- b) Telebista-tresnek ez dietela telebistaren beharrezanean erantzuten, eskeletoak Harris erantzuten ez zion legez.
- c) Harrisek bere eskeletotik aldentu nahi duela eta telebistak ikus-entzunezkoetatik.

### 3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## TXIKIAGOAK

Pobreak zergatik diren txikiak galdetu zidan alabetako batek. Harrituta geratuko nintzen, eta harridura-keinuak egingo nituen, beste alabak txanda hartu baitzion lehenari itaunaren nondik norakoa azaltzeko: «Guri txiki geratu zaizkigun arropak eramateko esaten digute eskolan, pobreei emateko. Jadanik erabiltzen ez ditugun jostailuak batzeko esaten digute, pobreei emateko. Guri txiki geratu zaiguna janzteko modukoa izango da, beraz, jende pobrea, edo guri txiki geratu zaizkigun jostailuekin entretenitzeko modukoa. Pobre guztiak txikiak dira?»

ELGE/OCDEk (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) esan berri duenez, geu ere laster izango gara inguruko herriak baino pobreagoak. Harritu egin gaitzke, ni neu alaben galderekin harritu nintzen bezainbeste, baina erakunde horrek emandako azalpena etxeko gazteena bezain sinplea da. Neurritz gain kontsumitu dugu orain dela oso gutxira arte, geneukana baino askoz gehiago genuela uste izanda: bigarren etxea, hondartza exotikoetarako bidaiak, kapritxo solte pila. Zorpeturiko zoriontasunean murgilduta bizi izan gara, eta orain, gerrikoa estutzea dagokigularik, porrot kolektiboaren zantzuak nonahi ikusten ditugu. ELGE/OCDE eta antzeko erakundeen ispiluan begiratuta, gero eta txikiago ageri da geure burua, gero eta pobreago.

Nik ez dakit nola konpon daitekeen hau. Denon artean, batzuek lau haizetara zabaldu duten moduan, edo kalapitan sartu gaituztenak bazter utzita. Dakiguna da lehengo errezetek ez dutela balio gurean, eta etxeak nonahi eta edonola eginagatik ez dela ekonomia sendorik sortzen, eta egun batetik besterako pagotxak garesti ateratzen direla epe labur edo ertainera. Behin eta berriro esaten dugu beste eredu batera jo behar dugula, aurrekoaren itoginen estaltze hutsa ez baita nahikoa. Beto, bada, eredu berriaren haizeak, baina harrapa gaitzatela lezioa ongi ikasita. Hala ez bada, laster besteek txiki utzitako jantzietan zelan sartu asmatzen ibili beharko dugu eta.

**KALTZADA, Pili. Deia, 2010eko martxoaren 23a. Egokitua.**

### **3. ariketa. Aukeratu erantzuna**

**24. Zergatik daude Pili Kaltzadaren alabak pobreak txikiak direlakoan?**

- a) Eskolan entzun dutelako zurrumurru hori.
- b) Txiki dutena pobreentzat eman behar omen dutelako.
- c) Alabetako batek besteari hori sinistarazi diolako.

**25. Zer antzekotasun ateratzen du iritzi-emaileak alabek eta ELGE/OCDEk esandakoen artean?**

- a) Neurritz kanpo kontsumitzen dugula, besteak beste, umeen arropa eta jostailutan.
- b) Pobreek arropa txikia erabiltzen dutenez, kontsumoan porrot-zantzuak daudela.
- c) ELGE/OCDEren aurreikuspena umeen pentsamoldea bezain sinplea dela.

**26. Zer iritzi du Kaltzadak ekonomia-arazoen irtenbideaz?**

- a) Eredu-aldaketa egiteaz gain, dakigunaz baliatu beharra dugula.
- b) Denon artean lortuko dugula irtenbidea, betiere, agintariei jaramonik egin gabe.
- c) Lehenik aurreko ereduaren itoginak estali behar direla eta, ondoren, haize berriak bultzatu.

**27. Zer baieztapen dator bat testuan esandakoarekin?**

- a) Umeei ere eragiten dietela ekonomiaz entzundakoek.
- b) Umeen hitzek gauza garrantzitsuetan pentsaraz diezaguketela.
- c) ELGE/OCDEk, agintariek eta guztiok umeengandik ikasi behar dugula.

## 4. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

## SEXU BIDEZKO GAIXOTASUNAK: HEMENTXE, ORAINDIK

Lotsa, beldurra, ezjakintasuna... hitz horiekin lotzen dituzte batzuek sexu bidezko gaixotasunak. Arantxa Arrillagak, ordea, gehiago erabiltzen ditu *prebentzio*, *tratamendu* eta *aurrerapauso* hitzak, gaiaz aritzean. **28** Izan ere, GIB-infekzio berrien datuak (Giza Inmunoeskasiaren Birusa) egonkortu egin diren arren, sexu bidezko beste gaixotasun batzuen infekzioak asko areagotu dira azken urteotan. Horrek erakusten du oraindik badagoela zereginik arlo honetan; hala ere, «askorentzat, tabu edo hitz egiteko gai zaila izaten jarraitzen du oraindik».

Osakidetzan duela 17 urte hasi ziren jasotzen GIB-infekzio berrien datuak modu sistematikoan. **29** Hala, ikusten da datuak biltzen hasi zirenetik, urtero gertatzen diren infekzio berriak % 60 jaitsi direla (229 kasu 1997an; 143, aldiz, 2013an). Horrenbestez, azken urteetako GIB-infekzio berrien kopuruaren joera ikusita, Arrillagaren ustez, «badirudi plangintzak egokiak direla, eta informazioa hartzaileengana iristen dela». **30** Eta birusaren transmisio-bideak izan duen bilakaera oso esanguratsua izan da: «1990eko hamarkadan, birusaren transmisioa droga injektatzeko xiringekin lotzen zen. Pixkanaka, sexu-harremanak birusa transmititzeko bide nagusi bilakatu ziren, eta, gaur egun, 10 kasutik bederatzitan, hala izaten da».

Azken urteotan, gainera, «infektatu berri gehienak (% 56) gizonezkoekin sexu-harremanak izan dituzten gizonezkoak dira». **31** Biak erraz sendatzen dira antibiotikoen bitartez, baina tratatzen ez badira, gaixotasun larriak dira. Kasu bietan ere preserbatiboa eraginkorra da kutsadura saihesteko. Beraz, Arrillagaren ustetan, sifilia zein gonorea pertsona horien artean hainbeste areagotu izanak agerian jartzen du hutsuneak daudela, eta konponbideak bilatu behar direla.

Alde batetik, Arrillagak azaldu duenez, «sexu-bidezko gaixotasunen berariazko hiru kontsulta daude; lurralde bakoitzean bat. Haietara hurbiltzea errazteko, zuzenean artatzen dituzte pazienteak; hau da, ez dute familia-medikuarengana joan beharrik aurretik. Gainera, anonimoak dira; hau da, ez dira Osakidetzan erregistratzen».

Bestalde, arrisku-talde horretarako lanketa berezia egin da. Hala, 2011ko neguan, Osakidetzak GIBaren eta sexu-bidezko beste infekzio batzuen transmisioa prebenitzeko kanpaina abiarazi zuen, gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoek bideratuta. «Hiesaren aurrean ez itxi begiak. Gizonetik gizonera, preserbatiboa erabil ezazu» izan zen kanpainaren leloa; eta, horrekin batera, talde horri zuzendutako lineako kontsulta jarri zen martxan eta oraindik martxan jarraitzen du.

Kanpaina berezi hori alde batera utzita, Osakidetzako Hiesaren eta Sexu Transmisioko Infekzioen Planak bideratutako prebentzio-programen artetik, farmazietan egiten den test azkarra nabarmendu du Arrillagak, oso emaitza onak ematen ari baita. Ekimen horrekin, Osakidetzak aitzindaria izan da Europa osoan. **32** 2009an hasi ziren test azkarrak eskaintzen farmazietan; eta, bost urteren ondoren, balorazio zeharo positiboa egiten du Arrillagak: «Izan ere, denbora-tarte horretan, 14.000 pertsonak egin dute testa farmazietan, eta,aldi berean, informazioa eta prebentzio-aholkuak jaso dituzte, horretarako bereziki prestatuta dauden profesionalen eskutik». Alde batetik, testa egitera doazenei, odol-tanta batzuk hartzen zaizkie hatz batetik, analisia egiteko. Emaitza jakiteko 15 minutu itxaron behar direnez, denbora-tarte horretan, farmazialariak elkarrizketa izaten du haiekin, kezka argitu eta aholkuak emateko. **33** Bestalde, testaren fidagarritasuna oso handia da. Emaitza negatiboa bada, % 100ean da ziurra ez duela GIB-infekziorik baldin eta 3 hilabete igaro badira infekzio-arriskua izan zuenetik. Positiboa bada, aldiz, baieztatu egin behar da, fidagarritasuna % 99,7koa baita: «Positibo faltsua izateko arrisku txiki bat dagoenez, farmaziatik erreferentziazko zentrori bideratzen da emaitza positiboa eman duen pertsona, eta han egun berean edo hurrengoan ematen diote behin betikoemaitza». Egin diren 14.000 testetatik, % 0,9k eman dute emaitza positiboa.



Sexu bidezko gaixotasunei aurrea hartzeko beste kanpaina batzuk gazteei zuzenduta daude. Arrillagaren esanetan, talde berezia da, berezkoa dutelako arriskatzea. Gazteen Euskal Behatokiak argitaratutako azken txostenean jasotzen denez, Euskadiko 15-29 urteko 59.000 gaztek izan dute sexu-harreman arriskutsuren bat (gazteen % 18). Hori dela eta, Arrillagari garrantzitsua iruditzen zaio, informazioa emateaz gain, trebezia sozialak eta konpetentzia emozionalak lantzea. **34** Izan ere, errealitate bat da gazteek, alde batetik, uste oker asko dituztela, eta, bestetik, gazte horiek ez dituztela ezagutu hiesaren urte gogorrenak, eta horrek GIBa kutsatzeko arriskua gutxiestea ekarri duela zenbait kasutan: «Gaitz kronikotzat eta ez hain larritzat jotzen dute hiesa, eta sifilia eta gonorrea XVIII. mendeko gaixotasuntzat dituzte, hau da, urrunekoak iruditzen zaizkie. Beraz, ez dute hain beharrezkotzat jotzen babes-neurriak hartzea».

Ondorioz, ezinbestekoa da sexu-hezkuntza jasotzea, baina ez gaztetan bakarrik, ezta beldurrean oinarrituta ere. Bestela, sexu-harremanak beldurrei eta gaixotasunei lotzen zaizkie; baina benetan sexua plazerra, desioa, konpartitzea, maitasuna... da.

GALARRAGA, Ana. Elhuyar Zientzia, 2014ko iraila. Egokitua.

### 4. ariketa. Txertatu testu zatia

- A. Helburu horrekin, Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, eskoletan berariazko programa bat dute, sexu-bidezko gaixotasunei eta nahi gabeko haurdunaldiei aurrea hartzeko, eta Internet bidezko sexu-heziketako programa bat, Sexumuxu izeneko atarian.
- B. Baina zenbat kasu izan diren jakitea bezain garrantzitsua da infekzioak nola gertatu diren ezagutzea, horri esker jakiten baitute nola jokatu behar duten prebentzioan.
- C. Pertsona immigranteen egoera legala, kontsulten informazioa eta beste faktore batzuk oztokatzen ari dira behar dutenak kontsulta berezi horietara iristea.
- D. Horri esker, hiesaren eta GIB-infekzioen bilakaera aztertzeke aukera dago.
- E. Osakidetzako Hiesaren eta Sexu Transmisioko Infekzioen Planaren arduradunetako bat da Arrillaga, eta inolako izurik gabe hitz egiten badu ere, ulertzen du batzuek beldurra izatea gaiari.
- F. Horretarako, aurretik, farmazialariek formazio praktikoa zein teorikoa jasotzen dute.
- G. Horrez gain, Arrillagak ohartarazi du talde horreketan ari direla agertzen beste infekzio batzuk ere, batez ere sifilia eta gonorrea.
- H. Zerbitzua EAEren hiru lurraldeetako 46 farmaziatan eskaintzen da, eta ezaugarri bereziak ditu: GIBa eta sifilia detektatzen ditu, anonimoa da, eta emaitza 15 minutuan jasotzen da.

#### ■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

|              |    |    |    |    |    |    |    |
|--------------|----|----|----|----|----|----|----|
| Hutsuneak    | 28 | 29 | 30 | 31 | 32 | 33 | 34 |
| Testu zatiak |    |    |    |    |    |    |    |

|           |  |
|-----------|--|
| Soberakoa |  |
|-----------|--|

### Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.**  
**EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

### 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.  
**Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.

- GAIA:** Jakin berri duzu datorren urtetik aurrera telelanean jarduteko aukera egongo dela zure bulegoan. Bulegoko langile bakar batek izango du horretarako aukera. Zu oso interesatuta zaude eta baduzu arrazoi bat: zure lana aproposa da telelanean aritzeko.
- Idatzi eskutitza laneko arduradunari zeure burua eskaintzeko eta ahalegindu zaitetz arduraduna konbentzitzen zeu aukera zaitzan.

### 2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

**EGOERA:** Gaur goizean irakurri duzu albistea Interneten: Andaluziako umeen futbol-talde batek 53-0 irabazi du eta entrenatzaileari kargu hartu diote beste taldea umildu dutelako. Jendearen mezuak ere irakurri dituzu: gehienak ez daude ados, lehiaren aldekoak baitira.

Gaiak kezkatu eta haserretu egiten zaitu eta herriko aldizkarian zeure ikuspuntua azaltzea erabaki duzu.

**GAIA:**

**UMEAK, KIROLA ETA LEHIA**

Teorian, behintzat, umeen kirola formaziorako da, eta ez lehiarako, eta hala jasotzen dute kirol-federazio gehienek.



Sustatu beharreko baloreak hauexek izan behar dira: apaltasuna, adiskidetasuna eta ahalegina.

Ohikoa da ikustea harmailetan gurasoak umeei oihuka, errieta egiten eta epaileak iraintzen.

Askoren ustez, lehia mugarik gabekoa izan behar da eta ona da norberaren maila hobetzeko.

Guraso askok beren frustrazioak umeengan deskargatzen dituzte eta gehiegi presionatzen dituzte kirolari bikainak izan daitezzen.

- Zer izan behar du kirolak umeentzat?
- Helduen arteko lehiakortasuna umeen artera zabaltzen ari ote gara?
- Lehiakortasunak zer du onik?
- Zer egin genezake jarrera desagokien aurrean?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

■ 1. ariketa: hutsuneak bete.

■ Irakurgaia: «Testamentu egiten duen batek bere herederoei bezala...»

|     |   |     |   |     |   |
|-----|---|-----|---|-----|---|
| 1.  | B | 2.  | C | 3.  | D |
| 4.  | A | 5.  | C | 6.  | B |
| 7.  | D | 8.  | A | 9.  | A |
| 10. | D | 11. | C | 12. | C |
| 13. | D | 14. | A | 15. | B |
| 16. | A | 17. | B | 18. | C |

■ 2. ariketa: aukeratu erantzuna.

■ Irakurgaia: «Telebista askatu»

|     |   |     |   |     |   |
|-----|---|-----|---|-----|---|
| 19. | B | 20. | A | 21. | C |
| 22. | A | 23. | B |     |   |

■ 3. ariketa: aukeratu erantzuna.

■ Irakurgaia: «Txikiagoak»

|     |   |     |   |
|-----|---|-----|---|
| 24. | B | 25. | C |
| 26. | A | 27. | B |

■ 4. ariketa: sartu testu zatia dagokion hutsunean.

■ Irakurgaia: «Sexu bidezko gaixotasunak: hemen, oraindik»

|              |     |     |     |     |     |     |     |
|--------------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|
| Hutsuneak    | 28. | 29. | 30. | 31. | 32. | 33. | 34. |
| Testu zatiak | E   | D   | B   | G   | H   | F   | A   |

|           |   |
|-----------|---|
| Soberakoa | C |
|-----------|---|